

Araitz | Betelu | Larraun | Lekunberri

MAILOPE

264

2018ko abendua

TOKIKOM



NON DAUDE GURE HAURRAK?

MAILOPE
PRES

ETXEAN ETA BIZIRIK NAHI DITUGULAKO!

Goizeko hamarrak dira, igandea, Atabalenen napolitana eta magdalena goxoak jan ditugu gosaltzeko, oparixoa egiten diogu gure buruari. Ostiral arratsaldean etxetik irten, Cádizera jaitsi eta hemen gaude, etxean. Horrelako bidaia bat egin ondoren merezi dugu.

Atzo ordu eta erdiz, Joanesek, Mattinek, Loreak eta ni egon ahal izan ginen Aitorrekin, nire anaiarekin, osaba-bitxirekin. 2x3 metro dituen gela batean, jolastu ginen mordo, pilotan, esku-jokoetan, telefono hautsian... Eta batean galdu egin nuen, eskutitz hau prenda bat da. Berari idaztea baino Mailopeko irakurleei idaztea erabaki dut. Berak bai baitaki zenbat maite dugun eta zenbat sumatzen dugun bere falta.

Bera herriarengatik sartu zen borroka latz hartan, gaizki edo ongi, baina momentuan bizi zen egoerak bultzatu zuen. Bere ustez, Euskal Herriaren askatasuna lortzeko bidea zen. Borroka latza izan zen eta sufrimendu asko izan zen alde guztietan.

Baina, jada zazpi urte dira ETAK borroka armatua utzi zuenetik, urte bat desegin zela eta aro politiko baten ateak ireki ahal izan ziren.

Preso politikoek, gogoeta saio luzeak egin zenituzten, bake eta normalizazioan aurrerapausoak emateko adostasuna agertu zenuten. Niretzat, Aitor, oso ausart jokatu duzue, duintasun osoz, eragindako minaren aitortza egin duzue, beste batzuek egin ez bezala. Trintxerak utzi eta euskal jendartearen gehiengoarekin bat egin duzue. Jakin gabe nora eramango zaituzten eta banakako eskaerak egiten hasi zarete, kartzelan onurak eskatzen, bigarren graduaren eskaera... azken finean bakerako eta normalizatorako aurrerapausoak ematen.

Baina oraingoz, espainiar estatuak mendekua aplikatzen jarraitzen du, mendekuaren mesedetara lege guztiak aldatuz. Dispersioa, sakabanaketa, betirako ezartzen zaizuen lehen gradua, preso gaixoak kartzelan mantentzen dituzte,...

Urriaren 23an, Estrasburgon aterako den sententziak, preso askoren egoeran eragingo du. Aitorren kasuan, hamar urte ditu jokoan, kartzelan hamar urte gehiago egin edo ez. Europako legearen arabera, Frantzia betetako urteek kontatzen dute, baina, noski Espainiaren arabera oraingoz ez.

Kartzelako arauak, euren legeak, preso hauentzat ez dute balio. NAHIKOA DA, ASKI DA! ozen oihukatu nahi dut.

Eskerrik asko, preso ondoan egoteagatik eta beraien aldarrikapenekin bat kalera irteten zareten guztioi!!!

Eskutitza Mailopera bidali baino lehen jakin dut Estrasburgoko sententzia, gaur urriak 23, jaso dugu golpe galanta. Ontzat eman dute Espainiak erabilitako trikimailua, beraien mendeku gosea asetzeko neurria eginiko legea.

Animo Aitor, animo preso zareten euskaldun guztiak! Aurrera bolie, lortuko dugu!!!

ORAIN PRESOK!!!

Aitor eta besteak etxera!!!

Maidar Agirrebarrena Beldarrain.

LARRAUN-LEKUNBERRI BATZORDE MISTOAK ERREFERENTZIA ZENTROA AMAZABAL INSTITUTURA ALDATZEKO ESKATUKO DIO NAFARROAKO GOBERNUARI**KONTRAKOTASUNIK GABE**

Gaur egun ikasleen %90ek baino gehiagok Leitzako Amazabal institutua hautatzen du DBHko ikasketekin jarraitzeko, Biurdana beharrean, baina Ibarberri ikastetxearen erreferentzia zentro gisa Iruñeko Biurdana institutuak jarraitzen du. Horrek kostu ekonomiko handia dakarkie udalei. Nafarroako Gobernuak, aldiz, garraio horren eskumena berea izanik ere, ikasle gutxi batzuen garraioa besterik ez du ordaintzen, Biurdana institutuan ikasten dutenena, hain zuzen.

Hau ikusita, eta konponbideak bilatzeko helburuarekin, EHBildutik Larraun-Lekunberriko batzorde mistoan (udalek elkarrekin hitzartuak dituzten gaiak lantzeko eremua) honako proposamen hau aurkeztu genuen: Nafarroako Gobernuak hezkuntza departamentuari eskatzea, bere funtzio eta kompetentzien logikan, derrigorrezko ikasketen bigarren zikloaren (DBH3-DBH4) gaur egungo egoera eta errealitatera egokitzea. Hau da, ikasleen gehiengoak Amazabal institutua hautatzen du, eta erreferentzia zentroaren aldaketak ekarriko luke Nafarroako Gobernuak Leitzako Amazabalerako DBH3 eta DBH4ko garraioaren gastu osoa eta jantokiaren zati handi bat bere gain hartzea, eta horrek udalen eta familien gastua murriztea ekarriko luke.

EH Bilduren eskaera onartu egin zen, aldeko 4 botoekin eta 2 abstentzioekin; azken hori Lekunberriko Taldeko bi ordezkarien posizioa izan zen. Orain, batzordearen erabakia Nafarroako Gobernuari jakinaraziko zaio.

EH Bildun lanean jarraitu dugu egoera konpontzeko, eta gure helburuak argiak dira: Iruñera eta Leitzara doazen ikasleen garraio zerbitzuak bermatuta egotea, familiek gutxiago ordaintzea Leitzako jantokiaren zerbitzuarengatik (500€ inguru aurreztu ditzakete urtean) eta Nafarroako Gobernuak, bere kompetentzien baitan, bere gain hartzea zerbitzua; horrela, udalek baliabide gehiago izango lituzkete beste zerbitzu batzuk indartzeko.

Larraun-Lekunberri Batzorde Mistoa

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi mailope@labrit.net-era hilaren 20a baino lehen.



12

16



28



- 04 ESKOLATIK MAILOPERA
- 05 BERTSO BERRIAK: Luis Mari Larreta.
- 06 ERREPORTAJEA: Haur lapurtuak.
- 12 BATZARRE
- 14 LUZE ETA ZABAL
- 15 EGUTEGIA
- 20 KULTURA: Sanmartinak.
- 22 ELKARRIZKETATXOA
- 24 KIROLA
- 26 OREKA OSASUNTSUA
- 28 PLAZATIK PLAZARA: Sugoi Etxarri Kolonbiatik.
- 30 KUXKUXEAN: Abenduko zorion agurrak.
- 31 KONTU TXIKIAK

• **MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:**

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzu eta Uztegi.

• **ARGITARATZEN DU:**

Mailope Kultur Elkarteak.
L.G.: NA 719/93
Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.
issuu.com/mailopealdizkaria

• **ERREDAKZIOA:**

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

• **ARGAZKIAK:**

Labrit, J.A. Garaikoetxea, Ricardo Bosch, Ibarberri ikastetxea, Lontxin Zubillaga, Ane Galdos, Sugoi Etxarri, Karmele Iparragirre, Amaia Mikeo, Mikel Betelu, Nafarroako Bertsozale Elkarteak, Plazaola Partzuergo Turis-

tikoa, Igone Vazquez, Lontxo Otamendi, Agustin Saralegi eta Idoia Igoa.

• **PUBLIZITATEA:**

Labrit Multimedia - 948 210 103 - mailope@labrit.net.

• **MAKETAZIOA:** Araitz Amatria.

• **TIRADA:** 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, Kontzejuak eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Nafarroako  Gobierno de Navarra

LABRIT
MULTIMEDIA

IBARBERRI



Salto eta salto!

Ibarberri ikastetxeko 4 urtekoak 5 urtekoekin batera urriaren 31n Salting-era joan ginen goiza pasatzera.

Han akrobaziak, txiri-bueltak, saltoak eta gazteluak ere egin genituen. Elkarrekin une politak bizitzeko eta barre asko egiteko aukera aparta izan zen.

Hurrengora arte!



eskolatik
mailopera



ASEGURU AHOLKULARIAK
Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa



NEKAZARI, S.L.
Kubota
STIHL
ANTONIO CARRARO

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com

BIDEGOXO JATETXEA

Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com



INTZA EZ DA GARBIGUNEA!

Ohikoa ez izan arren, tarteka Intzako herrigunearen sarreran dauden zabor edukiontzien ondoan traste zaharrak pilatzen dira. Joan den hilean esaterako, sei inprimatzaile eta pare bat monitore pilatu ziren, zenbait herritarren harridura eta haserrea piztuz, *Traperos de Emaus* Fundaziora deitu besterik ez delako egin behar hondakin mota horiek kudeatzeko.



INDARKERIA MATXISTAREN AURKA

Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Eguna izan zen joan den azaroaren 25ean eta gure eskualdean ere hainbat elkarretaratze egin ziren oinarri matxista duten indarkeria sorrarazten duten eragileak salatuz.



VIII. IZETA SARIKETA

Saats Karasatorrek irabazi zuen joan den hilean izandako VIII. Izeta Sariaketako txapela. Haren atzetik sailkatu ziren Josu Sanjurjo, Mikel Lasarte, Sarai Robles, Irati Majuelo eta Amaia Elizagoien. Aurretik bi kanporaketa jokatu ziren Iruztunen eta Lizarran. Guztira hamabi bertsolarik parte hartu zuten, tartean gure eskualdeko ordezkari bat, Aitor Irastortza.

bertso berriak Mailoperi jarriak: Luis Mari Larreta (Aldatz)

Doinua: Gure aurreko guraso zaharrak.

Hamaika egun denak euskaraz badator **Euskaraldia** belarri prest ta aho bizikin a ze lanaldi **haundia**, beharra bazen dena zegon da **deskarrilatuegia** baño hain egun gutxitan ez deu lortuko euskal **zubia** urtean zehar euskerarentzat egun geiho re **badia**.

Euskararen egoera onek jartzen nau goibel-**goibela** nahiko aldrebestua dago euskalkiaren **pardela**, igual pensauko dezute askok gogorregia **naizela** baño uste det gogoeta bat in beharko **genukela** horregatio urte osoan daramat euskal **txartela**.

Igor Mitxausentzako oina: Sanmartinakin amaitu dira inguruko jai guztiak

Puntuak: algara, gara, bada, lotara.



Hilak ala salerosiak?

2008. urtean lehertu zen gizartean lapurtutako haurren gaia. Azken urteotan, kasu horien oihartzuna isildu egin bada ere, gurean inoiz baino indar gehiagorekin piztu da. Maria Esther Telletxea, Malen Goikoetxea, Maria Jesus Martiarena, Elvira Ibar eta Fani Erro Frankismo garaitik datorren negozio beltz horren biktimak dira. Orain, elkarrekin, euren kasuak argitu arte borrokatzeko erabakia hartu dute.

Igoan jaioa da, baina Lekunberrira ezkondu zen Maria Esther Telletxea. Marcelino Mariñelarenarekin lau haur izan zituen. Bigarrena ordea, jaio eta ordu gutxitara hil zen. Hori esan zioten, eta hala sinistu izan du haur lapurtuen kasuak hedabideetan agertzen hasi ziren arte. 1973ko otsailaren 28an erditu zen Maria Esther. Orduan ere, Gizarte Segurantzako erditzeak

Bideko Amabirjinaren Ospitalean izaten ziren, baina data horietan berritze lanetan zebiltzala eta, Nafarroako Unibertsitatea Klinikara bidali zuten.

Egun hartan, eguerdi aldera, abiatu zen Iruñera. Alaba eta senarra etxean utzi eta taxian joan zen. Garai hartan, oso bestelakoak ziren erditzeak, emakumeek bakarrik bizi ohi zuten esperientzia hura. Ospita-

leatan ez zen beste inoren konpainiarik onartzen. Urduri egin zuen Lekunberritik Iruñerainoko bidea, zazpi hilabete eta erdi baino ez zituen beteta sabelean zeraman mutikoak.

Korneta txiki batekin haurraren bihotz taupadak neurtu eta gero, dena ongi zihuala esan zioten eta ez zuela zertan arduratu. Maria Esther: *“Berehala jaio zen, nire erditze guztiak azkarrak izan dira eta hura ere hala izan zen. Ongi jaio zen, baina jaio eta berehala eraman zuten, ez zidaten erakutsi ere egin. Handik bi ordutara, galdezka etorri zitzaidan, ea izenik pentsatu al genuen. Carlos Jose izena zuela esan nien eta ea zergatik galdetzen zidaten... Behar baino lehena-go jaiotzen ziren haurrak bataiatzeko ohitura zutela esan zidaten eta garai hartan, ez zitzaidan horren arraroa iruditu”.*

Beste bi ordu pasa zirenean, haurrak arazoak zituenaren berri eman zioten, baina eginahalak egiten ari zirela eta ez larritzeko. Egun hartan bertan, iluntze aldera, hirugarren edo laugarren aldiz etorri zirenean, hil egin zela esan zioten. Haurra ikusteko aukera eman zioten, baina Maria Esther jokoz kanpo zegoen jada, eta ez zuen haurra ikusi. Hurrengo egunean, senarrak Iruñera zihuan lehen autobusa hartu zuen, baina hura ospitalera iristerako, ehorztetxeok etorri eta euren lana egin zuten. Maria Estherrek Iruñeko hilerrian, lurperatuko zen lekuan, seinaleren bat uztea nahi zuela esan zien. Ez zioten herrira ekartzeko aukerarik ere eman.



Maria Esther, Maria Jesus, Fani eta Malen elkartu ditugu elkarrizketa egiteko.

María Estherrek eta Marcelinok beste bi neskato izan zituzten Carlos Jose jaio eta gero.



“Garai hartan, esandakoa onartu baino ez zenuen egiten. Esan zidaten ez zela inolako seinalerik geldituko, ezinezkoa zela, 24 ordu baino gutxiago bizitzen ziren haur jaioberriak hobi komunean lurperatzen zirela”.

Bizitzako pasarte hura Dominguez doktoreak azaldu bezala onartu zuen. Gerora, beste bi alaba izan zituen mediku berarekin eta ez zuen zalantzan jarri hark esandakoa 2008. urtean gai honen berri izan arte. *“Orain dela zortzi urte inguru, gaia he-dabideetan ateratzen hasi zenean, nire alabak hitzaldi batzuetan izan ziren eta Unibertsitate Klinikari halako kasurik ez zela ezagutzen entzun zuten, ez genion buelta gehiagorik eman. Orain, nik ere niri gertatutakoa argitu nahiko nuke”.*

Maria Estherri ez zioten haurra ikusten utzi, ez bizirik eta ezta hilik ere. Eta erditu ondoren, ez zioten inolako erabakirik hartzen utzi. Horrek susmoak pizten dizkio. Orain orduko dokumentazioa eskuratzen dabil.

Malen Goikoetxea berriz, Intzakoa da eta Tolosako Asunción Klinikari izan zuen bere lehen haurra 1969ko otsailaren 15ean. Juan Olasagarrerekin ezkondua zen (Malen orain hogei urte alargundu zela) eta berarekin joan zen Tolosara goizeko ordu bietan. Gogoan du elurte handia zela egun hartan eta joaterako urak egin zituela. Malen: *“Erditu aurrean, nei in-jekzioa edo zerbatte eman ziten minik ez sentitzeko eta gero erditzeko gelara eaman ninyuen eta han loarrazi ein ziten. Erditu ondoren, gelan esnatu*

Malen eta Juanek bi seme-alaba izan zituzten ondotik.



nintzen bakar-bakarrik. Nei ez zitean ez aipetu eta ez eakutsi, etzitzatela komeni ekustea! Eta ondoren eondu nintzen eunetan e ez zitean deus eakutsi”. Erditu ondotik gelan esnatu zenean, haurra gaizki jaio zela esan zioten Maleni, baina ez zioten ikusten utzi. Ibarako Benito Izagirre doktoreak artatu zuen erditze hura. Malenen amaren lehengusu bati, haurra katarroarekin jaio zela azaldu zion doktoreak eta Azaldegi medikua ere ekarrarazi zutelara, baina ez zela posible izan onik ateratzea. Eta beraiek lurperatzearen kargu eginen zirela. *“Ne alabak esaaten zeen: Ama, zuri ostu ein dizue! Hildakoa zertako due? Hildakoa eman ein behar zuen! Beño hila zela esan ziguen eta guk sinistatu eitten ginen”.*

Asunción Klinikari haur lapurtuen kasu ugari daude eta horien berri jakin orduko hasi zen Malen informazioa biltzen, baina etsita bukatu zuen. Tolosako hilerrian behar luke Intzako mutiko jaioberriaren gorpuak, baina han ez dago inolako gorpurik. Data horretan lurperatutako izenik gabeko fetu bat baino ez omen dago. Malen erregistroan ere izan zen eta bertan emandako informazioaren arabera, ez dute haur horren daturik. Eta han erregistraturik beharko luke, abortuak ere erregistratu egiten baitziren.

Orain, berriro ere indarberiturik eta bere egoera berean dauden gainerako emakumeekin elkaturik, berriro ere bere lehenengo haur haren bila hasi da.

Lekunberriko Maria Jesus Martiarenaren kasua bestelakoa da. Bere

María Dolores Goikoetxea eta Ramon Martiarena ezkontza egunean.



anaiaren bila baitabil. Aita Ramon Martiarena Etxarri zuen, lekunberriarra eta ama berriz Lezaetakoa, María Dolores Goikoetxea Zabalo. María Jesus: *"Gure aitak beti aipamen berdina egiten zuen, berari semea kendu egin ziotela"*. Lekunberrin bizi zen bikotearen lehen semea zen, ondoren jaio ziren Mari Jose eta María Jesus. Lehen seme hura, Jesus Mari, 1943. urteko irailaren 22an jaio zen. Ama etxean erditu zen, Frauca medikua- ren laguntzarekin eta handik zazpi egunetara bataiatu zuten. Baina ama ez zegoen ongi eta ginekologora joan zen, Iruñeko San Francisco Javier Klinikara, Miguel Etxarri doktorearen- gana. Haurra ere hara eraman omen zuten amarekin. Baina haurra prime- ran omen zegoen.

María Dolores han zela, haurra hil egin zela esan zioten medikuek. Ez zuen inork ezer ikusi, eta haurra osasuntsu joan zen Iruñera, ama zen gaizki zegoena. Haurra zigilatutako hil-kutxa batean eman zioten eta hala bueltatu ziren Lekunberrira. Erregis- troko datuen arabera, urriaren 4an hil zen. *"Zigilatutako eman zieten hil-kutxa eta ez zuen inork ireki eta gorpua ikusi. Aitak beti esan ohi zigun gauza bera: Kendu egin ziotela!"*.

Lekunberrin egin zioten hileta elizkizuna eta herriko monagilo gaz- tea arduratu zen hil-kutxa elizara eta hilerrira eramateaz. Herritar horren ahotik jakin zuten gerora, bere ustez

hil-kutxa hura hutsik zegoela. María Jesus: *"Fani hedabideetan ikusi eta gero eta amaren kasuan ere klinika berean eta mediku berarekin izan zela ikusita, etxean hitz egiten hasi ginen eta alabak animatuta Faniri hots egin nion eta martxan jarri ginen infor- mazioa eskuratzeko. Ez dakigu gure anaiaren kasuan zer gertatu ote zen, baina behintzat argitu egin nahi dugu. Hilik baldin badago, behintzat ziurtatu egin nahi dugu eta lasai gelditu"*.

Hurrengo elkarrizketatua ere Mi- guel Etxarri doktorearekin erditu zen. Garai hartan asko izan baziren ere haur lapurtuen negozioan parte har- tu zuten osasun langileak, gurean ez da kasualitatea kasu gehienak Etxarri Doktorearekin lotuta egotea. La- rraundarra zen Miguel Etxarri, Etxarri- ko Ausenean jaiotakoa. Frankisten aldeko bandoan ibili omen zen Gerra Zibilean eta ondoren eskuratu omen zuen Medikuntzako Lizentziatura. Ezin jakin haurren salerosketa horie- tan nahi zuelako parte hartu ote zuen ala behartua izan zen. Argi dago, or- dea, bere ustezko biktimak aski eza- gunak zituela, beti egon izan zelako lotuta larraundarrekin eta oso ospe ona omen zuen gainera.

Elvira Ibar Gorritira ezkondu zen Miguel Berekoetxearekin. 22 urte zi- tuen eta bere bigarren erditzea zen. Baina oso arraroa izan omen zen guztia. Lehenik emagin batek artatu omen zuen, bat-batean hura desa- gertu eta moja bat sartu omen zen, orduan, berehala haurra jaio egin zen. Segundo gutxiz neskatoaren aurpe- gia ikusteko aukera izan omen zuen eta izugarri polita omen zen. Ongi jaio zen. Gerxeago, Etxarri doktorea entzun zuen bere senarrari azalpenak ematen: *"Lasai egon Miguel, nik ez dut errurik izan. Ez didate abisatu. Erditzea ongi joaten bada medikuok ez dugu esku-hartzen, emaginarekin erditzen dira. Baina ez zaitetz arduratu, Elvira oso ongi dago eta seme-alaba gehia- go izango dituzue. Eta honetaz guztiaz neu arduratuko naiz"*.

Elvirari eta Migueli ere ez zieten haurraren gorpua ikusten utzi. Be- raiek ere gauzak horrela izan zirela

sinistuta bizi izan dira urte luzez, orain dela zazpi urte inguru Elvirak erretiroa hartu zuen arte. Gizarte Segurantzaren erretiroa hartzeko izapideak egiten ari zela, zenbat haur izan zituen galdetu ziotenean azaldu zien lau zituela, baina bosgarren bat jaio eta gutxira hil zela. Familia liburuan ez zuen datu hori jaso eta erregistrora bidali zuten jaiotze-agiriaren eta heriotza-egiaztagiriaren bila. Han ordea, Malenen kasuan bezala, ez zertorren haur horren inolako daturik. Elvirarentzako ere gogorregia izan zen egiaz ohartzea eta ikertzeari utzi egin behar izan zion, bere osasunak okerrera egin ez zezan. Orain, berak ere babes nahikoa duela sentitu du zer gertatu zen argitzen saiatzeko.

Fani Erro izan da hein handi batean emakume hauek bat egin eta gurean ez ezik, Nafarroan haur lapurtuen gaia, berriro ere, gizarteratzeko pausoa eman duena. Fani Lekunberri jaioa da, Barrenean. 21 urte zituen bere lehen haurra izan zuenean. "Nik Iruñeko San Francisco Javier Klinikaren erditzeko asmoa nuen Etxarri doktoareekin. Berak Klinikaren zerbitzu pribatua eskaintzen zuen eta Bideko Birjina Ospitalean Gizarte Segurantzako Zerbitzua ematen zuen. Azkeneko hilabetean, Ospitaleko zuzendari nagusia zela esan zidan eta ez nuela zertan Klinikara joan eta ordaindu. Berak artatuko ninduela ospitalean. Nire sendeen ezaguna zena, betiko ezaguna,

nire amari ebakuntza bat egin zion eta nire ahiz-pa zaharrenek berarekin izan zituzten beren alabak. Ni konfiantza osoz joan nintzen ospitalera".

1969ko uztailearen 30a zen, Fani bere senarra Anibal Centenorekin batera joan zen Iruñera, baina ohikoa zen moduan, bakarrik sartu zen erditzera. Goizeko hamaiketan iritsi zen eta gela txiki batean sartu zuten, guztiz bakarturik. Neskatoa eguerdiko ordu bata aldera jaio zen. Jaiotzera zihoan momentu berean, emagina sartu zen eta oihu egin zuen: "Etor dadila medikua, taupadak galtzen ari da!". Medikua etorri eta haurra jaio zen momentuan bertan gelatik atera egin zuten. Fanik lepoa luzatu zuen

"Ez dugu mendekurik bilatzen, justizia baino ez dugu nahi eta gure haurrak aurkitu ditzatela"



Fani eta Anibal euren ezkontza egunean.

**NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA**

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com

TAXILON



661 202 249
(9 plaza)

E-posta: lotamendi5@gmail.com

Atallu - Araitz

Lontxo
Otamendi
Artola



urrutia
enea

etxeko hestekiak

LEKUNBERRI

OTXOTORENA
okindegia

ARRIBE

ADII! TLF BERRIA:

948 51 30 32



panaderia okindegia

GALBURU ECO

Egurrezko laboreko ogi ekologikoa

Alde Zaharra 50 LEKUNBERRI 31870
948 50 40 42

Ibar-Berekoerxea familia.



ea ikusterik ote zuen, baina bultzada bortitz batez etzarnarazi eta loarazi zuten.

Hurrengo goizean, esnatu zenean, erizain bat sartu zen, kasualitatez Faniren arreba baten laguna zena eta gertatutakoa kontatu zion. Honek, ahizpa Mercedesi deitu eta gero, Anibalek bere koinataren deia jaso zuenean jakin zuen gertatutakoa. *“Harri-garria da, erizain horrekin harremanetan jarri naiz ea egun hartan zerbait sumatu ote zuen jakiteko eta*

ez omen da gogoratzen niri zuku bat ekarri eta nire ahizpari deitu zionik ere. Ez dut uste berak negozio horretan parte hartzen zuenik, oso gaztea zen, baina ez dago laguntzeko prest. Hala ere, hari esker jakin dut orain Etxarri ez zela ospitaleko zuzendaria, beste mediku bat gehiago besterik ez zela”.

Faniren kasuan ere, ez zuen inork haur jaioberria ikusi, ez berak eta ezta bertaratu ziren senarrak eta ahizpek ere. Iruñeko hilerrian lurperatu zuten ustez. Ondoren, beste lau seme izan zituen mediku berarekin. Min handia sortzen zion haur jaioberriei buruz hitz egiteak. *“Hedabideetan haur lapurtuei buruz hitz egiten hasi zirenean, katez aldatzen nuen, ezin nuen hura ikusi, min ematen zidalako. Nire ahizpek ordea orduan hasi ziren susmoa hartzen, orain arte ezer esan ez badidate ere”.* Uztailean, errain baten bitartez lortu zuen barruan zuen gertaera arraro horri zentzua eman eta puzzlea osatzen hastea. *“Nire erraina Maria Teresa, adoptatutako neska bat da, Nafarroako Familia batek adoptatu zuen eta zoriontsu izan da beti, baina hemezortzi urte bete eta gero bere jatorriaren berri ikertzen hasi zen gurasoak emandako datu guztiekin. Jaio zen klinikara joan zen Madrilera eta han moja batek bere bizitzarekin jarraitzeko esan zion eta ustez bere ama biologikoak idatzita utzitako eskutitz bat eman zion. Eskutitz hori bera lapurtuak izan diren haur askori eman diete. Bertan*

amak dio ez zuela diruagatik edo bere gurasoengatik utzi, ez zuelako maite utzi zuela. Eskutitz izugarri krudela da, ama batek hitz horiek inoiz idatziko ez lituzkeenak. Errima eta guzti dauka”. Errainak bere bizitzako pasarte hura Fanirekin partekatu zuenean, honek bere barruan zuen bizipena kontatu zion eta batzuetan berari ere haurra lapurtu izan ziotela pentsatu ohi duela esan zion.

Horrela, uztailean ekin zion Fanik bere neskatoarekin gertatutakoa argitzeari. Hilabete gutxitan datu asko lortu ditu eta haurra lapurtua izan zenezaren zantzuak geroz eta nabarmenagoak dira. Hilerrian bere izenean dagoen fetu bat omen dago, baina ez da existitzen ordea lurperatze egiaztagiria. Heriotzaren txostena senarrak berak sinatu zuen, eta hori mediku batek eta bi testiguk sinatu behar izaten dute. Pertsona kualifikatua ez izateaz gainera, senarrak ez zuen haurra ikusi ere egin.

Bestetik, Gizarte Segurantzak haur bakoitzeko eman ohi zuen diru-laguntza bat eman zieten. Baina Gizarte Segurantzaren baieztatu zioten, diru hori ez zuela Gizarte Segurantzak eman eta ziurtagirian zegoen seilua ez dagokiola Gizarte Segurantzari. Beraz, diru hori ospitaletik bertatik atera zen. Familia Liburuan datorren dokumentu hori faltsifikaturik dago. Faniren susmoa haurraren salerosketako diruaren zati bat eman ziotela da. Baina bere historia klinikokoan datorren datu txiki bat izan da pistorik garrantzitsuena. Ospitalean jarri zioten profila D.Social izan zen, hau da Distrofia soziala. Antza profil hori jarri ohi zieten lapurtzera zihoazen haur horien amei. *“Baliabiderik ez zenuela, familia gatazkatsu edo baztertu bategatik zatozela, senarrak ez duzula, burutik ongi ez zaudela edo haur hori mantentzeko diru askirik ez duzula esan nahi zuen. Izan dira, bere haurra erditu eta berehala bilatzen hasi zirenak eta eroetxean sartu zituztenak gaixo egon gabe, isilarazteko. Botere handia zuten eta edozer egiteko prest zeuden”.*

“Behintzat ez dezatela pentsatu ez genituela maite”

Zein da eman nahi duzuen hurrengo pausoa?

Fani: Udalei laguntza eskatu diegu eta Larraungo eta Lekunberriko Udalen babesa daukagu eta beste zenbait udalen atxikimendua eskatzeko asmoa dute. Nafarroako Gobernura ere joango gara, agintariei zerbait egin dezatela eskatuko diegu, beraiek borondatea izanez gero, askoz ere errazagoa delako hau guztia argitzea.

Salaketak ere jartzen hasi zarete...

Fani: Bai, guk fiskaltzan eta foruzaingoan jarri dugu salaketa. Ikerketek aurrera egitea espero dezagun. Gainera, Nafarroako Parlamentuak 2017an lege bat onartu zuen haur lapurtuen kasuak argitzeko eta errolda bat sortzeko. Errolda hori dagoeneko sortuta dago eta haurra lapurtu zioten edozein gurasok edo senitartekok eman ditzake bere datuak. Pixkanaka geroz eta kasu gehiago ari dira azaleratzen. Ama asko isilik egon dira urte luzez. Orain arte hurrek soilik zuten euren gurasoak bilatzeko eskubidea, artxiobotan arakatzekoa etab. Lege berri honekin gurasooi ere eskubidea aitortzen zaigu.

Maria Jesus, zure anaiaren kasuan, ezinezkoa litzateke hil-kutxa hori berreskuratu eta han gorpurik dagoen egiaztatzea?

Maria Jesus: Galdezka ibili gara Lekunberriko Udalean, baina hemen ez dago lurperatutakoen datu horren zehatzik. Ez dakigu hilerriko zein txokotan lurperatu zuten.

Zuen egoera publiko egin eta gero, zein izan da herritarren erreakzioa?

Fani: Gehienak gurekin daude. Gure lekuan jartzen dira. Niri denek babes eta maitasun handia eman didate. Eta hedabideak ere primeran portatzen ari dira. Egia da gaur egun arte agintariek ez dutela argitara eman nahi izan haur lapurtuen gaia, jende asko dagoelako inplikaturik, botere handia duten pertsonak daude salerosketa horien atzean. Eta haietako asko hil egin badira ere, mediku haien ondorengoak gelditzen dira, eta ez dute hau guztia azaleratzerik nahi. Adopzioan hartzen zituzten familia asko ere dirudunak eta boteredunak ziren, baina badira halaber salerosketa horren berririk ez dutenak.

Eta zer esango zeniekete lagungarria izan daitekeen daturen bat ezagutzen duen pertsona horri? Gure eskualdekoa nahiz kanpokoa izan...

Fani: Hitz egin dezatela. Dagoeneko euren haurrak hiltzat eman, nahiz lapurtuak izan zirela pentsatuz hil egin diren guraso horien memoria-gatik bada ere. Hitz egiteko betebeharrak morala dute.

Ez dugu mendekurik bilatzen, justizia baino ez dugu nahi eta gure haurrak aurkitu ditzatela. Euren berri izan nahi dugu, aurkituz gero ez dakigu gurekin harremanik izan nahiko duten, baina behintzat ez dezatela pentsatu ez genituela maite. Hori izan baitzen nire errainak esaterako eskutitz hori irakurri zuenean sentitu zuena.

DNA probak egiten hasi zarete erroldan izen-emateko...

Fani: Bai. Baina ni ez naiz Espainiako DNA probez fidatzen. Nafarroako errolda nahiko fidagarria dela pentsatu nahi dut, baina nik Iruñean DNA proba egiteaz gainera, beste bi proga egin ditut atzerriko bina labo-

AUTOZERBITZUA · ARRAINDEGIA
· HARATEGIA ·
PATXI GALARZA
Astelenehunik larunbatera
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00
Igande eta jaiegunetan
8:00 - 14:00
Irurtzun 

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34

Antsoñea
BASERRIKO GAZTA
948 513 468
www.antsoñea.com
Uztegi (Araritz)

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARAITZ
LARRAUN
JALMENTA ETA KONPONTZER
634 551 743
infoaralar@gmail.com

ce consulting
empresarial
ANA RAMOS MARTÍN

- Enpresa eta autonomoen aholkularitza
- Lursailen administrazioa
- Aholkularitza fiskal eta laborala

666 939 332
aramos@ceconsulting.es
www.ceconsulting.es

Etxaburua, 3. Betelu
La Muga enpresa gunea, 11. Orkoien



rategitan. Euren bitartez kasu asko argitzen ari baitira. Lapurtua izan denaren zantzurik duen horrek ere egin behar du proba. Garrantzitsua da, asko erraztuko duelako kasuak elkar-lotzea.

Maria Jesus: Oso zaila izango da pertsona horiek aurkitzea.

Malen: Haitako askok ez due jakingo adoptatuk dienik e!

Fani: Baina bat bakarrik aurkitzea lortzen badugu ere garaipe handia izango da gu guztiontzat. Berdin zait zeinena.

Psikologikoki zer suposatzen du iraganean gertatutako kasu hauek mugitzeak?

Fani: Izugarria da. Hil egin zela sinistarazi diozu urte luzez zeure buruari eta

orain lapurtu egin zizutela pentsatzea, ikaragarria da. Baina era berean, bizirik dagoenaren esperantza izateak indarrak ematen dizkizu.

Maria Jesus: Barrenak mugitzen zaizkizu, ezinezkoa da hitzez azaltzea. Hasieran ezinezkoa dela iruditzen zaizu, baina gertatu diren kasuak eza-gutzen zoazen heinean posible dela ohartzen zara.

Maria Esther: Hil zenaren berri eman zidatenean erotu egingo nintzela uste nuen, baina gero horretan ez pentsatzen saiatzen zara eta orain kostatzen da gauzak horrela izan ez zirela pentsatzea.

Fani: Etxarri doktoarearekin erditutako larraundar horietako asko hilik daude dagoeneko, baina euren senideek susmoa izanez gero argitzen saiatuko beharko lukete. Familiaren betebeharra da haur horiek aurkitzea eta ondoren, nahi badute harremana mantentzea, eurek nahi dutena errespetatuz. Baina garrantzitsua da euren haurra hil egin zela eta gorpua ikusten utzi ez zieten guraso horiek susmoa izan dezatela. Baita gorpua zigilatutako hil-kutxa batean eman bazieten ere, gorpua ikusi ez bazuten argitu dezatela non dagoen. Noski horien artean egiaz hildako haurrak egonen direla, baina Nafarroan urte haietan hildakoen zenbatekoa ikaragarria da.

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitaratekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera

Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)

948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com

German Lasarte
ARBEONDO
HARATEGIA
Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.

HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:

948 50 43 31

Lekunberri

aitz
berri

edertasun
zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890

948 513 083
696 732 290

aitzberri@hotmail.com



Biotzaritik Salbaterra Eskarainoko etapa eginen du Ttutturrek urtea amaitzeko

Azaroaren 25ean Ttutturre Kirol Elkarteko mendizaleek Irunberri-Arangoi-ti-Biotzari tarteko etapa egin zuten. 30 lagun inguru elkartu ziren. Abenduaren 30ean Biotzaritik Salbaterra Eskarainoko etapa eginen dute, Nafarroako Hegoaldeko mendietako zeharkaldiaren azken aurreko etapa. Gainera, joan den hilean elkarteren asanblada orokorra egin zuten. Urteko kontuak onartu eta datorren urteko egutegia prestatu zuten. Zuzendaritza batzordea ere berritu zuten. Idoia Igoa lehendakaria eta Patxi Sagastibeltza lehendakariordeak osatuko dute besteak beste.

Gogoratu beti bezala bi ibilbide proposatuko direla, motza eta luzea. Ondorengo bazkaria eta joan-etorria egiteko autobusa 25 eurotan.

Animatu eta eman izena:

www.ttutturre.com

ttutturrekirolelkaratea@gmail.com

Telefono zenbakia: 680 652 183.

Xabi Azpiroz lehen mailako Binakako Erremonte Txapelketan da

Xabi Azpiroz uitziarra, lehen mailako Binakako Erremonte Txapelketa jokatzeko ari da. Lehen aldia du lehen mailan eta ale honen itxieran hirutik hiru partidu irabaziak zituen. Semi-finalak jokatzeko ari dira orain eta ikusi egin behar finaleira iristeko aukerarik ote duen. Zorte on!

Iñaki Galarza eta Oinatz Iriartek irabazi dute 2018ko Larraungo Pilota Goxua Txapelketa

Aldazko Sanmartinetan eman zioten amaiera Larraungo Pilota Elkarteak antolatutako aurtengo Pilota Goxua Txapelketari. Iñaki Galarzak eta Oinatz Iriartek irabazi zuten finala, Igor Mitxaus eta Iñigo Gurraeren kontra aritu eta gero. 22 eta 18an gelditu zen markagailua. Guztira zortzi bikote izan dira aurtengoan Pilota Goxua Txapelketan parte hartu dutenak.



Lagunasesoria S.L.

Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es



SOTIL GARAJEA

BETELU

948 513 007
sotilgarajea@gmail.com



OKM

ABOKATUAK

Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua

Arretxea, 1º, Alli. Tfnoa: 609 130 555

Nire sabela ez dago salgai

Zorionez, gaur egun familia kontzeptua aldatu egin da. Beharrezkoa zen aldaketa, dudarik gabe. Ados nago guztiz, familia egitura ezberdinekin, eta familia horiek haurrak izatearekin, are gehiago honen alde egingo dut beti. Baina, denok dakigu haurra izateko obulua eta espermatozoidea behar direla, eta hauek elkartzean garatzeko ingurunea emakume batek besterik ezin duela eskaini. Horra hor non dagoen niretzat gai honetan naturala edo bidezkoa ez dena. Amatasuna subrogatua edo labe-emakumeetan.

Adoptatzeko aukera dagoela ahaztu zaigula dirudi.

Legez idatzia dago gizaki batek bere gorputzaren edo atalen baten donazio bat egitean, ezin dela inolako diru saririk egon. Guztiz altruista da. Hau oinarrizko giza eskubide bat da askatasunarekin batera. Gaur egun zuetako zenbatak onartuko luke esklabotza? Edo odol donazio batengatik norbaiti dirua ematea? Guztiz immoral, ezta?

Ba arazoa hemen hasten da, obulua eta espermatozoideak direnean donatzen direnak, tartean dirua dago. Egia da baldintza batzuk bete behar direla hautagai izateko, diru ordainketa horiek buruhaustegatik direla, "eragozpenengatik". Emakumearen kasuan aurre tratamendu hormonalak jasan behar duelako, gizonetzakoaren kasuan aste bat egon behar duelako abstinentzian.

Lehen pauso hau eta gero, "lehengaiak" ditugula esan dezakegu. Ondoren hauek laborategian elkartzen dira, eta hainbat ikerketa egin eta



gero, baliagarriak direnak hautatzen dira. Besteak hondakineta. Baliagarri direnen artean, bat aukeratu izango da emakumearen uteroan txertatzeko eta besteak izoztu eta gorde egiten dira.

Uteroan txertatzea guztiz beharrezkoa da, gaur egun ez dagoelako beste biderik fetua garatzeko. Eta hemen sortzen da arazo nagusia. Txertaketa hori beste emakume baten sabelean egiten denean. Beste emakume horren sabela alokatzen denean. Alokairuak 35.000 eta 150.000 euro bitartekoak izaten dira lurraldearen arabera. Kontratu bidez ezartzen da guzti hau. Salmenta hau. Niri behintzat hori iruditzen zaidalako, salmenta. Esklabotza baina are lotsagarriagoa, hau defendatu egiten dugulako, bakoitzak bere gorputzarekin nahi duena egin dezakeenaren lelopean. Baina kontratu horietan haurdunak hainbat

klausula bete behar izaten ditu. Bere elikadura, erabili ditzakeen eta ezin dituen produktuak edo egon daiten lekuak zehazten zaizkio, askotan haurdunaldiak irauten duen hilabeteetan isolaturik bizitzera ere behartzen dute. Umiliazio hau gutxi balitz, kasu batzuetan, negozio bihurtu da, merkatu beltzean labe-emakume katalogoak daude, emakume gehienak beraien egoera ekonomikoa dela eta hartzen dute beraien sabela alokatzearen erabakia.

Guzti hauez gain asko dira onesten diren ekintzak amatasun subrogatua defendatzen dugunean. Lotsagarriena iruditzen zaidana da alde dagoen jendearen argudioa. Arutua eta baldintzatua egongo balitz, ez litzake halakorik pasako, nola ez diozu ba aukera hori ez duen emakume bati, bikote homosexual bati, edo gaixotasun bat dela eta haurrak izan ezin duen bikoteari lagunduko? Zure ahizpari edo anaiari. Gure moralarekin jolasten dute, presio sozialaren begiradapean jartzen gaituzte. Libre beharko balu zure gorputza horrelako zerbaitegitera bideratzeak, eta bai gorputza, zeren bederatzi hilabetez umea sabelean daraman emakumeak jasaten dituen aldaketak gorputz osori eragiten dioten aldaketak dira. Fisikoak eta psikikoak. Zergatik ez dago legezztatua eta arautua prostituzioa? Beraien gorputza erabiltzen dute, beraien gorputzarekin nahi dutena egin dezaketent pertsonak dira eta nola ez diozu pertsona bati gizakiarantz guztiz oinarrizkoa den zerbaitegitegi utziko?



luze

Leire Aranburu

EGUTEGIA

EGUTEGIA

EGUTEGIA

EGUTEGIA

Bizitakoa, ikasgai

Gogoratzen dudan lehenengotarikoa gauza da lau urte nituenean, nire anaia Teo, urtebete gazteago, eta biok hasi ginela eskolan. Garai haietan, esne botilatxoa ematen ziguten egunero umeoi eta, ordurako, nik esnearen zaporea gorroto nuen. Ezkutuan Teori ematen nion esnea, berak, orduan eta gaur egun, maite zuelako esnea.

Eskola urteak ez ziren samurrak izan niretzat. Oso aspergarria egiten zitzaidan maisuari entzutea eta oso aspergarria ere etengabe datuak, datak, gertaerak eta abar luzeari buruz ikastea eta errepikatzea. Urtean zehar, suspentso asko ekartzen nituen etxera, baina ikasturtearen bukaeran, ikasteari gogor ekin eta ikasgai guztiak gainditzen nituen, maisu eta gurasoen harridurarako. Nik, garai hartan, uste nuen nire eskolako kide gehienak neu baino azkarragoak zirela eta ikastea ez zitzairela niri beste kostatzen, alegia, neure burua ez nuen behar beste balioztatzen. Gaur egun, esango genuke autoestimua baxu neukala. Ez ninduten inoiz inongo profesionalengana eraman, arazo handirik ez nuelako ematen eta garai hartan egun baino ohitura gutxiago zegoelako. Egun, agian, psikologo batek diagnostiko bat eman lezake, esaterako, "atentzioaren defizitaren sindromea" edo antzekoa, eta etiketa jarrita etxera.

Egia esan, konturatzen naiz batzuetan atentzioa jartzearekin eta guztiz zentratzearekin zailtasunak daukadala. Adibidez, gauza bat baino gehiago egiteko daukadanean, kostatzen zait jarrian bat hasi eta



Arg: Unsplash.

bukatzea. Esaterako, etxeko lanak egiteko dauzkadanean, egin egiten ditut guztiak, baina saltoka ibiltzen naiz batetik bestera, bat bukatu gabe beste batera pasatzen naiz eta gero, atzera hasierakoa bukatzea. Azkenean bukatzen dut gauza guztiak egiteaz, baina, seguruenik, denbora luzeago eman behar izaten dut eta nekatuago gauza bakoitza jarraian egin izan banu baino.

Eskolan gertatu bezala, unibertsitatean berdin segitu nuen. Urtean zehar, gaizki, motibazio eza, asper-tuta, eta urtearen bukaerarako gehiegi ikasteko. Eskolako estrategiak ez zidan balio eta suspenditu egiten nuen behin eta berriro, batez ere, lehenengo mailan. Hurrengo ikasturteetan motibazioa hasi egin zen gaiak interesgarriagoak zirelako eta, azkenean, lortu nuen karrera bukatzea. Hori bai, berriro ere, unibertsitatean sentitu nuen besteak ni baino

azkarragoak edo hobekak zirela. Gauzak horrela, egun, ikusten dut gurasoak eta, batez ere, nire aita, ez zirela gehiegi kezkatzen nirekin, onerako eta txarrerako.

Gauzak aldatu egin ziren, ez naiz orain luzatuko azaltzen zergatik, Kanadara bizitzera joan nintzen. Han, etxetik urrun, nire belaunaldiko lehena izatera pasatu nintzen eta baita horregatik sariak jaso ere. Nola da posible eskolan eta unibertsitatean, batzuetan bestearen azpitik ibili den ikaslea atzerrira joatea eta beste unibertsitate batean, askoz ikasketak zailagoetan, hau da, master eta doktoretza ikasketetan batzuetan bestearen gaitetik jartzea? Hiru faktore eman ziren: batetik, helduagoa eta arduratsua sentitzen nintzen, bestetik, ikasketak sistema askoz hobekak zirela, motibazio eragilea eta hezitzailea. Eta, azkenik, zuzenean nitz arduratzen zen maisu ona izan nuen.

Urte luzeetan errudun sentitu izan naiz eskolan eta karrera ikasten izan nituen nota txar eta errendimendu eskasagatik. Errua eta besteak baino txarrago nintzenaren ideia. Egun, banoa onartzen neuk ahal nuena egin nuela. Ez nuen kanpoko laguntzarik jaso eta gurasoak lanpetuegi zeuden nirekin eta nire beste lau anai-arrebekin nirekin kezkatzeko, nahiko lan zuten familia aurrera ateratzen. Bizitakoak eta honen ulermena oso baliagarri suertatzen zaizkit gaur egungo hainbat gazte ulertzeko eta laguntzeko, neuk ere antzekoa pasatu bainuen.



AURTENGOAN ERE ARALAR UDAL MUSIKA ESKOLAK "MUSIKA MUGIMENDUAN" TAILERRA JARRI DU MARTXAN

Badira zenbait urte "Musikari Txikien" tailerra eskaintzen hasi zirela. Guraso eta haurren arteko harremana oinarritzat hartuz eta musikak egindako ekarpenen bitartez, haurren heziketarako gehigarri diren baloreak erakusten dituen ikastarotxoak. "Musikari Txikien" tailerra, 3 urterainoko haurrei eta euren gurasoei eskainia dago. Hiru eta lau urte bitartekoentzako berriz, "Musika mugimenduan" tailerra eskaintzen du Aralar Musika Eskolak. Iazko arrakasta ikusirik, urtarrilean eta otsailean eskainiko dute berriro ere. Bertan, haurrei egokitutako musika bizipena eskaini eta era berean, aurretik hasitako lanari jarraipena emango zaio. Garazi Erbiti, Klaudia Oyarzun eta Unai Artola izanen dira saioetako arduradunak. 2015ean jaiotako haurrei eskainitako tailerra da. Guztira, 45 minutuko sei saio izanen dira 20 euroren truke. Urtarrilaren 11, 18, 25 eta otsailaren 1, 8 eta 15ean. Plazak mugatuak izanen dira beraz eman izena lehenbailehen info@alar.org e-postaren bitartez edo telefono zenbakietara deituz 948504489 / 672122472.

ATALLUKO PRESA BEHERA BOTA DUTE

Atalluko presa bota zuten joan den azaroan Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren aginduz. Helburua, arrain-hazkuntzaren mugimendua sustatzea da erreketako habitat naturalaren aldeko funtzionamendua saihesten duten presa horiek deuseztatuz. Presa bota ondoren izugarri aldatu da Atalluko inguru horrek zuen itxura eta bertako nahiz inguruko zenbait herritarrengan atsekabea ere sortu du, bertan bainu asko eta asko hartutakoak baitziren uda partean. Presa bota izanak ordea, uholdeek eremu horretan izan dezaketen inpaktua nabarmen jaitsiko du. .



ARALARKO MENDIZERRAN ERABILERA PUBLIKO JASANGARRIA BULTZATZEKO HITZARMENA SINATU DUTE

Aralar Elkarteko, Sakana Garapen Agentziako, Aralar San Miguel Santutegiko eta Plazaola Partzuergoko ordezkariak akordioa sinatu zuten joan den azaroaren 22an, Lakuntzako udaletxean. Hitzarmenaren helburua, sinatu duten erakundeen arteko lankidetzara iraunkorrerako marko bat egitea da, erabilera publikoa sustatzen dituzten jarduerak eta politikak bultzatzeko asmoarekin.

Ekimen hauen helburua, Aralar KBEko balio naturalak, kulturalak eta historikoak sustatzea eta babestea da. Ekimen hauek aurrera eramateko, turismo jasangarria (gizarte eta ingurumen arloetan), sentsibilizazioa eta ingurumen-heziketa gako izango direla nabarmendu zuten.

Aralarrek milaka bisitari erakartzen ditu urte osoan zehar. Eta horrek hainbat aukera ematen dizkie, informazio, heziketa eta interpretazio jardueren bidez, bisitari mendi honen balio naturalak eta kulturalak erakusteko aukera, nahiz aisia, jolas eta turismo jardueren bidez, tokian tokiko garapena sustatzeko aukera.

Baina, mendizerran bultzatutako edozein jardura era ordenatuan eta seguruan egin behar da, bertako balioen babesa, kontserbazioa eta balioa bermatuz. Erakunde hauek komunean dituzten helburu horiek bermatzeko sinatu da lankidetzara hitzarmena.



ERRIGORAKO SASKIEN IRABAZLEAK!

Baditugu dagoeneko joan den alean zokketa-tu genituen Errigorako bi saskien irabazleak. Euskaraz norekin egiten duzuen jakin nahi izan genuen eta zuen mintzalagun gogokoenarekin argazkia bidaltzeko proposamena luzatu genizuen. Lezaetako Ibone Estangak bost urte ditu eta bere amarekin ere euskaraz egin ohi du. Bestalde, Ugaitz eta Aitzol Zubillaga beteluarrek ere euren artean euskaraz egiten dute. Zorionak lauroi!



BATUKADA TALDE BERRIAK ABENDUAREN 14AN IZANEN DU BERE LEHEN ENTSEGUA

Batukada talde berria sortu dute eskualdean. Sei lagun elkartu dira oraingoz eta kide gehiagoren bila dabilta. Lekunberriko ospakizunetan zein herriz herri jotzeko asmoa du taldeak. Ostiralero, Ibarberri ikastetxean elkartuko dira entseatzeko, arratsaldeko 19:30etatik 21:30etara. Abenduaren 14an izanen dute euren lehen entsegua. Hamasei urtetik gorakoa bazara eta perkusioa jotzea gustatzen bazaizu edo besterik gabe, probatu nahiko bazenu, hurbil zaitez. Saioak doakoak izanen dira eta Fran Bravok gidatuko ditu hasiera batean, helburua denen artean ikastea baita.

Informazio gehiago: Mitxausenea Kultur Etxean edo 676 641 998 telefono zenbakian.

APIRILAREN 4TIK 14RA BITARTE IZANEN DA 21. KORRIKA

21. Korrikaren aurkezpena egin du AEK-k. 2019ko apirilaren 4tik 14ra bitarte izanen da. Garesen hasi eta Gasteizen amaituko da, ibilbidea oraindik zehazteke dago ordea. Baina dagoeneko euskararen aldeko Korrikaren alde egiteko bideak zabalik daude. Alde batetik, Korrika arropa salgai dago Larraungo AEK euskaltegian. Eta Korrika laguntzaile egin zaitezke Larraungo AEK euskaltegian edo www.korrika.eus atariaren bitartez. 12 euroren truke edizio honetako pina, txartela eta hori erabiltzeko deskontuen katalogoa jasoko duzu. 21. Korrikarekin jasotako dirua, Euskal Herri osoko gau-eskolei eta euskaltegiei laguntzeko erabiliko da.

Izan zaitez KORRIKA laguntzaile eta gozatu bidez!

MENDIALDEA MANKOMUNITATEAK “EREIN OHITURA, EGIN KONPOSTA” KANPAINA AURKEZTU DU

Hondakin Mankomunitateak herritarrak materia organikoa konpostatzera animatzeko kanpaina martxan jarri du, Nafarroako Hondakin Legeak materia organikoaren %50 bereizita kudeatzeko helburua betetzera iristeko. Gaur egun Mendialdea Mankomunitateak organikoaren %14 jasotzen du era horretan.

Ingurumen ikuspegitik sortzen dugun hondakinaren ardura hartzea azpimarratu dute alde batetik, baina baita Hondakin Legeak zabortegira isuritako zabor tonengatik ezarri duen kanona murriztekoa ere.

Mendialdea Mankomunitateko batzarrak ekainean onartu zuen gai organikoa bildu eta kudeatzeko 2018-2020 plana, zeinen arabera, Mankomunitatean sortzen den materia organikoaren %100 konposta bidez bertan kudeatzeko helburua ezarri zuen. Erabaki honekin gertuko ekonomia bultzatu nahi da eta gure hondakinek Culebrete plantaraino egin beharreko 120 km-ak saihestea.

Arrazoi guzti hauengatik, Mankomunitateak herritarrak auzo-konposta zein etxe-konposta egitera bultzatzen ditu eta izen ematera animatzeko deia luzatu.

Mendialdea Mankomunitateko ordezkariak egindako agerraldian konpostarekin erlazionatutako ekintzetan aurrerantzean erabiliko den irudia aurkeztu zen, datozen urteetan erreferentziazkoa izango dena.

JAIAK

Inoiz baino jende
gehiago
Sanmartinetan!

Urtetik urtera, geroz eta jende gehiago hurbiltzen da Aldazko Sanmartinetara. Aurtengoan goraino bete zen elkartean atarian jarritako karpa. Iraunkorrek txarangak ere ez zuen huts egin eta herrian barna egindako errondan giro ederra sortu zuten. Horrez gain, bertsoak, patata tortilla lehiaketa eta pilota partiduez gozatu zuten aldazarrek besteak beste. Gaintzan ere azaroko bigarren asteburuan ospatu zituzten herriko jaiak. Herritarren parte-hartzea eta laguntza ezinbestekoa izaten da festak antolatzeko eta ederki moldatzen dira gaintzatarrek auzolanean. Ostiralean, 101 lagun elkartu ziren afaltzera Sonbelu elkartean. Larunbatean, haurrentzako jokoak egin zituzten eta igandean disko-jaiarekin eman zioten amaiera Sanmartinei.



ALDATZ



GAINTZA



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO
ELKANO
S.L.**

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com



Erein ohitura, egin konposta

ZERGATIK HONDAKIN BIHURTU BALIABIDE DENA?

Sortzen dugun hondakinen erdia organikoa da, lagundu irtenbide-jasangarri bat ematen!

Nafarroako hondakinen lege berriak, organikoa baliabide bihurtzeko nahiaz, **organikoaren %50a** bereizita kudeatzeko helmuga ezarri du. Horregatik, materia organikoa bereizi eta ongi kudeatzera beharzen gaitu.

Mendialdea Mankomunitatean gaur egun **%14** konpostatzen dugunez

2018-2020 bitarteko plana osatu dugu legeak ezarritako xedea betetzeko. Bereizketa hau sustatzeko osmaz legeak zerga berri bat ezarri du: zabortegira isurtutako hondakina kontuan hartuko duena. Zentzu horietan, **urteik urtera zerga hau garestiago** izango da; aurtengoan Mendialdea osatzen dugunok 10.000€ gehiago ordainduko dugu, datorren urtean 20.000€ izango dira, eta egoera aldatzen ez badugu, 2020. urteik aurrera 40.000€ko gaitzera izango du organikoa zabortegira isurtzeak.

Organikoa baliabide bihurtzeko helburuarekin, Mendialdeak tresna batzuk martxan jarri ditu. Nafarroan aitzindari direnak **Herri txikietakako organikoaren %100 herrian bertan kudeatzeko** urratsak ematen ari gara eta gainontzeko herrietan, ahalik eta biztanle gehien animatu nahi ditugu organikoa bereizteko pausua ematera.

GUZTION PARTE HARTZEAREKIN LORTUKO DUGU!

948 51 04 44 - info@mendialdea.eus - EIBARREN 1,2 - 31880 LEITZA



“Ez zaigu ezer kostatzen euskaraz hitz egiten ikasi nahi duten horiei laguntzea”

Ane Galdosek eta Karmele Iparragirrek bost urte daramatzate Mintzakide talde banarekin bidelagun gisa. Urritik ekainera bitartean asteen behin, ordubetez, lauzpabost lagun elkartzen dira euskaraz hitz egiteko. Mintzakide taldeak Bidelagun beharrean daude.

Zein da Bidelagunaren papera Mintzakide taldean? Aurretik prestatutako saioak izaten dira?

Karmele: Ez. Agian zalantzaren bat sortzen bazaie, aste batetik bestera zerbait landu daiteke, baina ez dugu aurrez pentsatzen zeri buruz hitz egin, esaterako.

Ane: Gu normalean kafetegi batean elkartzen gara ostiralero. Ordubetez hasiera batean, baina beti luzatu egiten gara, gustura gaudelako. Eguraldi ona egiten badu tarteka paseotxo bat ere ematen dugu. Naturaltasun osoz ateratzen dira hitz egiteko gaiak. Beste edozein lagunekin elkartzen zarenean bezala.

Eta Mintzakideetako batek esan nahi duen hori nola esan ez dakienean?

Ane: Normalean haien artean elkarri lagundu ohi diote. Hasieran ezer ez esaten saiatzen naiz eta ondoren, ez badira argitzen, orduan bai. Baina askotan nik ere ez dakit nola esaten den.

Karmele: Oso akats nabaria baldin bada, adibidez aditza lehenaldian erabiltzen ari dela orainaldian beharrean edo alderantziz, orduan lagundu egiten diet eta berehala ohartzen dira.

Ane: Batzuek zuzentzeko eskatzen dizute eta beste batzuek ez dute hori behar. Ongi dago ere nahi duten moduan hitz egiten uztea, nahiz eta mila aldiz hanka sartu.

Karmele: Oso ongi moldatzen dira, gure moduan hitz egiten dute ia. Eta nik adibidez hiztegia eraman ohi dut poltsikoan, hitz bat nola esaten den ez dakigunean, hor begiratu eta kitto! Baina normalean ez dizute gramatikari buruzko galderarik egiten. Horretarako hor daude euskaltegiko irakasleak.

Ane: Gu ez gara irakasleak, laguntzeko prest gauden taldekide bat gehiago gara. Bidelagun izateko beharrezkoa den bakarra euskaraz jakitea da.

“Gu ez gara irakasleak, laguntzeko prest gauden taldekide bat gehiago gara”

Ane, zu Euskal Filologia lizentziatua zara eta Karmele, zuk ere esperientzia pixka bat baduzu... Baina ez da beharrezkoa halako esperientziarik bidelagun izateko, ezta?

Karmele: Ez. Bilatzen duguna da egunerokotasunean pertsona horiek gainerakoekin euskaraz elkarriketak izateko gai izatea. Beraiek konfiantza hartu dezatela eta euskaraz egiten duen jende gehiago ezagutu dezatela, eta praktikatu eta hitz egin dezatela normaltasun osoz.

Ane: Harreman sareak ere zabaltzea. Haietako askok beharbada ez daukate aukerarik inguru erdaldun batean bizi direlako edo hizkuntza ohitura batzuk oso barneraturik dituztelako. Mintzakideri esker, beste lau lagun dituzu eta herrian edozein momentutan topatuz gero, pertsona horrekin automatikoki euskaraz egingo duzu, ohitura hori barneratu duzulako.

Gurean, euskaraz egiteko aukera egon badagoen arren, agian ohiturekin apurtzea da duten oztoporik handiena...

Karmele: Bai, oso zaila da zenbait pertsonekin erdaraz egiteko ohitura baduzu, euskaraz hitz egiten hastea. Baina hesi horiek apurtu egin behar ditugu.

Ane: Lotsa ere sentitzen dute askotan. Gaitasun handirik ez badute, lotsa ematen die etengabe hanka-sartzen ibiltzeak eta beti justifikatzen ibili behar izateak: “Barkatu, euskara ikasten ari naiz...”. Hori gure akatsa ere bada, ez daukagulako pazientziarik, euskal hiztunok gara lehenak erdarara pasatzen bestea deseroso sentitu ez dadin edo... Eta aurrean duzun horrek

hain justu kontrakoa behar du, euskaraz egin diezaiozula nahi du.

Nola animatuko zenukete jendea Bidelagun izatera?

Karmele: Hasieran esfortzu txiki bat eskatzen du, baina ez horren handia, azken batean elkarrekin kafetxo bat gustura hartzen dugu, lagun artean. Niretzako ere oso motibazio handia da pertsona horiek euskaraz ikasi nahi izatea eta niretzat ere izugarri aberasgarria da.

Ane: Azkenean lagunak bihurtu dira. Hasieran, ezagutzen ez dituzunean agian, izan dezakezu tentsio momenturen bat, baina gero konfiantza handia hartzen duzu. Niri askotan eskerrak ematen dizkirate, eta nik esaten diet niretzat ez dela inolako esfortzua, aste osoa momentu hau noiz iritsiko itxoiten egoten naizela. Gu ostiraletan elkartzen gara, aste-buru osoa aurrean, eta niretzako momentu polita da. Gainera ni ez naiz bertakoa, beraz, niretzako aukera ikaragarria izan da jendea ezagutzeko eta herrian ere integratzeko. Nik dena zor diet emakume hauei! Uste dut guk euskaldun gisa badugula ardura bat ere eta ez zaigu ezer kostatzen euskaraz hitz egiten ikasi nahi duten horiei laguntzea. Kontrakoa uste dut oso aberasgarria dela denontzat.

Karmele: Nik jendea parte hartzera animatuko nuke. Eta gainera, Mintzakide taldeetatik kanpo ere gure egunerokoan horrelako ohiturak hartu beharko genituzke. Esaterako, parkean egunero tartetxo batez elkartu ohi bagara, edo



kirola egitea gustatzen zaigun hiruzpalau herritar bagaude, elkartzen garen momentu horretan egin dezagun euskaraz. Modu ezberdinak aurkitu behar ditugu.

“Niretzako motibazio handia da pertsona horiek euskaraz ikasi nahi izatea”

Egin zaituz Bidelagun!

Harremanetarako:
Larraungo AEK euskaltegia:
Artzanegi 6, Lekunberri.
948 604 704 / larraun@aek.eus





Hesteetako flora eta nola zaindu

Gaurkoan, niretzat garrantzi handia daukan gai bati buruz arituko naiz, hesteetako flora, hain zuzen. Gaur egun, gure bigarren burmuina dela esan dezakegu eta garrantzia handia hartzen ari da. Geroz eta jende gehiagok du hesteetako flora ahula eta ongi ez badago, arazo asko sor ditzake, gaixotasunak ager daitezke, baita minbizia ere.

Lehenik eta behin zer den azalduko dizuet; bakterio bizi batzuk besterik ez dira, gure digestio aparatuan aurkitzen direnak. Baina bakterioak ez al dira kaltegarriak? Pentsatu dezakezue zuetako askok. Ba kasu honetan ez, eta gainera onuragarriak dira.

Gaur egungo elikadurak, estresak, kutsadurak, tabakoak, alkoholak, drogak, botikak, bizitza sedentarioak... gure hesteetako flora ahultzen du, honako gaixotasunak sortuz:

- Haizeak.
- Tripa puztuta sentitzea.
- Idorreria.
- Beherakoa.
- Immunitate defentsak ahultzea.
- Infekzioak.
- Chron gaixotasuna.
- Kolon narritakorren sindromea.
- Minbizia.
- ...

Elikagai hauek arazo honekin lagun zaitzakete, baina beste ohiturak

ere aldatu behar dira, hau da, bizitza osasungarri bat eramatea ezinbestekoa da. Honako hauek dira elikagai horiek:

- Frutak: ahuakateak, fruitu gorriak, sagarrak, limoiak, platanok...
- Barazkiak: alkatxofak, ilarrak, lekak, espinakak...
- Probiotikoak: osagarri moduan edota elikagai moduan (ahuntzaren kefirra, barazki fermentatuak, chucruta adibidez).
Gogoratu, Gabonak laster direla, beraz zaindu zaitzete baita egun hauetan, osasuntsu egotea oso garrantzitsua baita.
Hurren arte.



Ez jolastu suarekin, gozatu harekin

JARRAITU AHOLKU ERRAZ BATZUK SEGURTASUNA
AREAGOTZEKO, ZURE TXIMINIAREN
EROSOTASUNARI UKO EGIN GABE

ERAIKITZEKO EDO BERRITZEKO, PROFESIONALAK KONTRATATU

ALDIZKA MANTENTZE-LANAK EGIN

BEHAR BEZALA ERABILI



www.tximiniak.nafarroa.eus



GOGOAN IZAN: Neurri guztiak hartu arren, kea edo sua ikusten baduzu, deitu berehala 112 telefonora. Deitu ondoren, itzali tximinia eta, zure burua gal ikusten baduzu, saiatu sua itzaltzen suhiltzaileak iristen diren bitartean, baina ez jarri inoiz zure burua arriskuan.



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Distantziatik, dudana baloratzen, duguna baloratzen

lepa lagunok! 10 milioi biztanle inguruko hiri erraldoi batetik idazten dizuet. Bogotan nago, Kolonbiako hiriburuan, mugikortasun-programa baten bidez Psikologia Graduak azken aurreko seihilekoa burutzen. Bogotan ari naiz bizitzen, baina bertatik atera eta herrialdeko hainbat leku ezagutzeko aukera ere izan dut.

Distantziak, gure eguneroko errealitatea argiago ikusteko aukera ematen omen du; niri behintzat, sei hilabeteko abentura honetan zehar hainbat ideia sortzen joan zaizkit, Kolonbiak, munduaz, gure herriaz, gure herriez... Hausnarketa horietako bat zuekin partekatzen noa.

Munduan kultura bakar bat indar handiz nagusitzen ari dela inoiz baino argiago ikusi dut. Eta horri lotuta, ohartu naiz -hemen han baino gehiago- herrietatik hiriburuetarako salto oso handia dela. Bertako herriak ezagutzera joan naizenean, 'vallenatoa' entzuten duten gazteak ezagutu ditut, bertako jatetxe tipiko batean "lulada" goxoa probatu dut... Bogotan, berriz, guzti hori ikusi badaiteke ere, munduko bazter guztietan eskaintzen duten 'menu' berdina duten McDonalds-ak, mundu osoan

"Mundua bera irudikatzeko modu bakar bat gailentzen ari da"

berdina den modako arropa, 'genero urbano' bihurtu den reggaetoia eta trapa... nagusitzen dira, geroz eta gehiago.

Aurrekoak, adibide pare bat besterik ez dira, baina horiekin azaldu nahi dudana da munduko herrialde ezberdinen berezitasunak, maila guztietan (izaera, musika, janzkera, hizkera, bizimodua, mundua ikusteko modua...) herrietan ezagutu daitezkeela hobekien. Eta hirietan berriz, kultur globalizatua nagusitu ohi dela, bertakoari pixkanaka leku guztia hartuz eta desagerraraziz. Hala ere, joera indartsu horren eraginari, herriek hobe eusten badiote ere, hor ere norabidea berdina da.

Globalizazioaren arazoiez luze eztabaidatu daiteke, baina ondorioa argia da: mundua geroz eta uniformeagoa bihurtzen ari da, mundua bera irudikatzeko modu bakar bat gailentzen ari zaie tokian tokiko izaera eta ikuskera ezberdinei.

Ezin dugu ahaztu bilakaera horren eragile (edo kontra-eragile) gara gu erabaki bat hartzen dugun bakoitzean. Beraz, fenomeno honen aurrean zeintzuk dira gure aukerak? Kultura globalizatuak eskaintzen dizkigun eskemak gure egin, eta proposatzen zaigun bizimodu hori onartu, lehenago edo beranduago emango den herri, kultura, hizkuntza... txikien desagertzea asimilatuz; edo munduko herrien aniztasuna integratzeko moduak bilatu.

Nik bigarrenaren alde egin nahi dut, askoz ere justuagoa iruditzen zaidalako. Honek ez du esan nahi munduan zeharreko komunikazioa errazten duten teknologia berriak ukatu, mugak itxi eta norbere herrian isolaturik bizi behar dugunik, guztiz kontrakoa. Nire ustez, mundu hobea go bat lortu nahi badugu, munduko herri guztiak geroz eta batuago, integratuago, egon behar dute balio batzuen gainean (askatasuna, ekitate, burujabetza, elkartasuna...). Integrazioak esan nahi du munduko edozein txokotan bizita ere, pertsona guztiek eskubide berak izatea, horrek herrialde, eskualde, herri, familia, norbanako... bakoitzaren bizimo-

 **ALIPROX**
Lekunberri
janaridenda
hamabostaldiro
eskaintza bereziak

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA
 696 658 288
LEKUNBERRI

**AURRERA
TABERNA
ARALAR, 15
948 60 47 24**

**TAXI
SOROA
609 168 217
Bederatzi plaza**

IORTIA EL INCA DENTRAL HORTZ ELITIKA
Juanjo Gaitte García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591
Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69
ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI



duaren berezitasunei uko egin beharrik gabe. Hortaz, asimilazioak planteatzen duena da 'munduko herritar' izateko, guztiok mundua ikusteko eta bizitzeko eskema berak (ezarritakoak) onartu behar ditugula. Integrazioaren bidez, aldiz, ez dugu gure hurbileko kultura baztertu beharrik munduko herritar izateko.

Bigarren aukera justuagoa izateaz gain, polittagoa ere bada. Nik kolore askotako mundua nahi dut, norberak berea zainduz, beste herri edo herrialde batera joan eta han nola bizi diren, nola harremantzen diren, nola hitz egiten duten, zer jaten duten... ikasi eta bertakoekin nire herriko bizimodua elkarbanatu nahi dut, elkar aberastuz, bata bestearen gainetik jarri gabe.

Horregatik, distantziatik, ohartzenaiz nolako zortea daukadan -daukagun- hain nortasun indartsuko leku batean jaiotako eta bizi izanaz, aberastasun guzti hori jaso izanaz; gure nortasun kolektiboa gure nortasun indibidualaren parte garrantzitsua baita. Horregatik, txikitasuna mespretxatzen dugun garai hauetan, gure izaera kolektiboa osatzen duten ezaugarrietako batzuk gogorarazi eta balioan jarri nahi ditut: gure herrixkak, ber-

tako bizimodu berezia, horren txikiak izanik ere, pestak eta bestelako jaiak antolatzeke gaitasuna, gure mendiak eta paisaiak, bertako hizkera(k), bailara osoko biztanleok osatzen dugun zirkulu soziala, gure hedabide (irriti eta aldizkari) propioak edukitzeak duen balioa, arazo kolektiboak modu kolektiboan konpontzeke gaitasuna, herri mugimenduak, auzolanaren kultura, euskara, euskal kultura zentzu zabalenean...

Gure elementu kolektiboen garrantziaz ahaztuta gauden honetan, aipatutako guztiaren balioa gogoraztea beharrezkoa ikusi dut; gurea den hori maitatu, zaindu eta aurrera ateratzeko lekukoari heltzeko. Distantziatik, jaso dugun guzti hori gehiago baloratzen ikasi dut, eta horrek indarrak eman dizkit, hara itzultzean, munduan nagusi den joeraren aurrean, txikitasunetik, gurearen aldeko nire ekarpena gogo eta ilusio handiagoz egiten jarraitzeko. Nirekin eta beste askorekin batera, lekuko hori jasotzera animatu nahi ditut gure eskualdeko bizilagunak. Gutako askoren apustua edukiz eta zentzuz betetako txikitasuna indartzea da, handitasun erakargarri, baina hutsalaren aurrean. Zein da zurea?

Sugoi Etxarri arruiztarra Kolonbian da uztailez geroztik. Orain arte bizitako esperientziak zer-pentsatua eman dio eta Mailopeko irakurleekin konpartitu nahi izan du.

Hostal Betelu

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Etorri eta on egin!

Erreserbak: 948513026 618557889



AMAIRU BAR

ETXEGO PIZZAK.
KOPA BERGIZIAK

948504352

LAGUNDU MAILPEKO BAZKIDEA IZAN NAHI DUZU? mailope@labrit.net

LARRAUN GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ
MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA

Gruas y Talleres LARRAUN S.L.

Lekunberriko industriagunea,
21. nabea
31870 Lekunberri
Nafarroa

Mugikorra: 626 494 356
Telefonoa: 948 507 229
Faxa: 948 507 281
gtlarraun@gmail.com





Mikel Astiz Buldain
Abenduaren 16an, 7 urte.
Igor Astiz Buldain
Abenduaren 31n, 2 urte.
*Zorionak maitiak! Oso ongi
pasa zuen egunean.
Mila musu etxekoan
partez!*



Enaitz Iriarte Olano
Abenduaren 19an, 4 urte.
*ZORIONAK eta egun polit bat
pasa dezazula. Elaia, amatxo
eta aitaxoren partez.*



June Tolosa Iraola
Abenduaren 14an, 9 urte.
*Zorionak maitia!!! Goxatu
zure urtebetetze eguna eta
ondo pasa.
Muxu potoloak, Urko, aitaxo
eta amatxoren partez.*



Mikel Buldain Garzaron
Abenduaren 13an, 9 urte.
*Zorionak eta egun on bat pasa.
Muxu haundi bat etxekoan partetik.*



Alain Castrillo Cruz
Abenduaren 1ean, 13 urte.
*Zorionak Alain!!
Ondo pasa zure eguna!!
Atalluko familia.*



Manex Mitxeltorena Eskamendi
Abenduaren 13an, 2 urte beteko ditu
etxeko txikiak.
*Ongi pasa zure egunean ta muxu haundi
bat aita, ama ta Jokinen partez.*

Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.

**M. Angeles
Urrizalki**

**iragarkiak,
berriak,
eskelak...**

**Diario Vasco eta Diario
de Navarrako
Korrespontsala**

**948513056
699179437**

Atabal
okindegia

Era askotako
ogiak eta gozoak

Etxez etxe
banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...
948513151

MAITE
harategia

**BERTAKO
HARAGIA**

Txistorra, txorizoa,
saltxitxak,
sukaldatutako platerak.
Etxera eramateko
zerbiltua ere eskeintzen
dizugu.
Antigua Kalea N°7
31890 BETELU

Telf: 948 51 30 88
maiteharategia@hotmail.com

ABENDUA

2 | LEKUNBERRI:

Umeentzako zinea eta txokolatea San Juan Zentroan, arratsaldeko 17:00etan.

3 | ESKUALDEA:

Euskararen Eguna.

4 | LEKUNBERRI:

Ibarberri Kantuz, 15:30ean, Ibarberri Ikastetxeiko patioan.

4 | LEKUNBERRI:

Umeentzako eta gazteentzako lehiaketa. Gaia: Larraun eta Lekunberriko historia. Sariak izanen dira. Animatu eta hurbildu udaletxera, arratsaldeko 17:30etan.

23 | LEKUNBERRI:

Lekunberriko "Jesus Jaimerena" Abesbatzaren eguberriko emanaldia. Parrokian 11:45ean.

24 | ESKUALDEA:

Olentzeroren etorrera.

URTARRILA



SALGAI

- Basoan hazitako txerri gizenak salgai. Harremanetarako: 663 486 255.

- Baserri bat salgai Atallun. Egoera onean eta oso paraje ederrean. Harremanetarako 646 703 705.

- Pisu berritua salgai Betelun. 90 m2-ko etxebizitza, igogailuarekin, hiru logela (horietako bi balkoiarekin), bi komun, saloia miradorearekin, sukaldea terrazarekin eta garaje itxia. Harremanetarako: 699 348 975.

ekin
rotulacion
948 85 32 79

SAN MIGUEL
gasolindegia
Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu

CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri
OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884

tanatorios IRACHE
Betidanik
ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI, BETELU, LEITZA
LORREAK, HILARRIAK, ESRELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA
· 948 19 70 70 ·
www.tanatoriosirache.es

Merkatu Txikian iragarri bat jarri nahi baduzu idatzi mailope@labrit.net-era.

Araitz Beteluko

Kultur Astea

2018

AZAROAK 30, 11:00

Beteluko eskolan

Zer nahiago, euskaraz trebatu ala trabatu?

Hizlariak: Iraia Ceballos eta Amaia Astibia.

Laguntzailea: Leitzaldeko IKAeuskaltegia.

AZAROAK 30, 19:00

Beteluko udaletxean

Araxes ikastetxea, ikas-komunitatea. *Zatoz!*

Kontatuko dizugu!

Hizlariak: Ikastetxeko irakasleak.

ABENDUAK 1, 19:00

Arribeko udaletxean

Mugikortasunaren egoera gure bailaran. Ga-

rraioa: *"Garaiz"* ekimenaren aurkezpena.

Mahai ingurua Araitz-Beteluko ordezkariekin.

ABENDUAK 2, 13:00

Beteluko elizan.

Beteluko abesbatzaren kontzertua.

ABENDUAK 3, 19:00

Lezaetako elizan

"Aralar mundua leku den lurra" dokumentala.

ABENDUAK 4, 19:00

Errazkingo ostatuan

Familia zaintza: nola lagundu?

Oinarrizko eta gutxieneko klabeak, arauak eta betebeharrak.

Hizlaria: Marian Zestau.

ABENDUAK 5, 19:00

Intzako Herriko Etxean

"Madagaskar" diapositiba emanaldia Imanol Amondarainekin.

ABENDUAK 6, 17:00

Gaintzako elkartean

Haurrentzako antzerkia: *"Lujindar ahizpak"*.

ABENDUAK 6, 19:00

Uztegiko Herriko Etxean

Landa eremuaren iragana eta etorkizuna:

Mixel Berhokorigoin, EHko Laborantza

Ganbarako ordezkaria.

ABENDUAK 7, 22:00

Azkarateko Herriko Etxean

Anari kontzertuan.

ABENDUAK 8

Atalluko elkartean

16:30tan mus txapelketa azkarra.

21:00eran bertso-afaria Iñaki Apalategi eta Jon Martinekin.

Ondoren gaupasa.